

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Artxiboko administrari plaza betetzeko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Azaroaren 23an, Lehendakartzaren 95/2023 Dekretua onetsi zen.

Aztertu dira Lehendakartzaren 69/2022 Dekretua eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko azaroaren 28ko Erabakiaren gai zerrendako bigarren puntua.

Aztertu da 2022ko abenduaren 21eko ALHAOn (146 zk.) argitaratutako 3454/2022 iragarria, zeinaren bidez hautaketa oinarriak eta deialdia argitaratu baitziren egiturazko plaza hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdiaren esparruan Akats materialak zuzendu ziren 2023ko urtarrilaren 25eko ALHAOn (10 zk.) eta 2023ko otsailaren 20ko ALHAOn (21 zk.).

Abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku uzten da.

Aztertu da 2023ko apirilaren 19ko BOEn argitaratutako 9571 iragarkia, eskaerak aurkezteko epea irekitzen duena.

Aztertu da irailaren 25eko 68/2028 Dekretua, onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda onesten duena.

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogeitau egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

ERABAKITZEN DA

Lehenengoa.– Aiarako Kuadrillan administrazio orokorreko eskalako administrari azpieskalako artxiboko administrari plaza bat merezimendu lehiaketaren bidez hautatzeko prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onestea, baita autobalorazioaren behin-behineko puntuazioa ere, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdiaren esparruan

Onartuak

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN	AUTOBALORAZIOA PUNTUAK
Blanca	Otegui	Vergara	***6868**	100
Mikel	Martinez	Adán	*5662****	23,3702

Ez onartutakoak

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN	ARRAZOIA
Alex	Larrea	Ortiz	7894*****	TASAK EZ ORDAINTZEA
Leire	Menoyo	Mugica	****9605*	TASAK EZ ORDAINTZEA
Leticia	Montalban	Vera	**6872****	TASAK EZ ORDAINTZEA

Hamargarren oinarrian jasotakoarekin bat etorritik, deialdian plaza bat sartu denez, autobalorazioan zero puntu edo gehiago lortu dituzten eskaerak baloratu behar dira.

Bigarrena.– Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek agiriaren bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendu honek barnean hartzen ditu eskaeran alegatutako merezimendu guztiak, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnak izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, izangaiek I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite ereduak jasotzen dituenak.

Hirugarrena.– Autobalorazioan kasu bakoitzean adierazitakoa baino puntuazio handiagoa lortu duten izangaiek adierazi beharko dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

Laugarrena.– Agiriak Aiarako Kuadrillaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Bosgarrena.– 9.2. oinarriaren arabera, baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara azterketa egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela egiaztatzen badute. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean errekurtsua ebatzi gabe badago, euskara azterketa egin ahal izango dute, kautelaz. Egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

Seigarrena.– Aipatutako hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileko kide izendatzea honako hauek:

	TITULARRA	ORDEZKOA
Epaimahaiburua	Pablo Martínez de Arbulo Echevarría	Alexander Rodríguez López
Epaimahaikidea	Vanessa Domínguez Casal	M ^a del Carmen Rojo Pitillas
Epaimahaikidea	Jose Ignacio Goenaga Garralda	Amado Abascal Calleja
Representante del IVAP	Carmen Luque Moreno	Izaskun García Zorzano
Idazkaria	María Jesús Sáez de Jauregui Suso	Jorge Gallo Medina

Zazpigarrena.– Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta web orrian ere (www.cuadrilladeayala.eus).

Zortzigarrena.– Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio lehendakariari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsuak batera jartzetik. Aurrekoez gain, interesdunak egoki jotzen duen beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango du.

Bestalde, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako egoeretakoa batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaiek prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, bat etorri aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin.

Bederatzigarrena.– Kuadrillako gobernu batzarrak egiten duen hurrengo bilkuran dekretu honen berri ematea eta Lehendakariaren Dekretuen eta Ebazpenen Liburuan transkribatzeko agintzea.

Arespalditza, 2023ko azaroaren 27a

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA

I. ERANSKINA

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundeetan.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizioz egiaztatuko ditu eta/edo espedientean sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zazpigarren oinarria):

- NAN/AIZ.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak.
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

DATUAK KONSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:),
..... prozedurari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:

- Titulu akademikoa.
- Euskarako hizkuntza eskakizuna.
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

Aurka egiteko arrazoiak:

.....
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....
.....

.....,(e) koren(a)

Sin.:

II. ERANSKINA

BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:),
..... erakundearendeialdiari
dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua erabiliko dut,
egun honetan lortua:

.....,(e) koren(a)

Sin.: